



MIMAT

BALIO PROPOSAMENA

- **Zer behar edo arazo konpontzen dugu?**

Gure enpresak gizarteare behar bati aurre egiten dio. Gure ingurura begiratzean **talentudun jende** asko dagoela ikusi genuen. Haiek lotsagatik edo dakitena erakusteko aukera ez izategatik, haien talentuari ez diote behar bezalako etekina atera. Horregatik, jende guzti hori webgune batean biltzea erabaki dugu, **ezagunak izateko aukera** emateko.



Ideiaren iturria:

- Lagun batek musika talde bat sortu nahi zuen, horretarako jende gehiago behar zuen. Horren ondorioz, mutil batekin kontaktuan jarri zen eta elkartu ziren. Baina hori, oso arriskutsua izan liteke, ondo ezagutzen ez baduzu.
 - Editorial batek, idazle batzuen liburuak idazleen baimenik gabe argitaratu zituen.
 - Kalean abesten edo instrumentuak jotzen dagoen jendeak, talentu handia daukala ikus daiteke baina probetxurik ez diote ateratzen.
- **Zerk bereizten gaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?**

Bereizten gaituen ezaugarri asko ditugu, esaterako:

- **Pertsonalizazioa:** bezeroari moldatzen garelako. Gure laguntza desberdina izango da gure bezeroa dagoen arloaren arabera (musikaren arloan, margolanaren arloan...). Gainera, lana errazten diogu, komunikazioaz arduratzen garelako.
- **Eskuragarritasuna:** hamazortzi urtetik aurrera edonork parte har dezake.
- **Erabilerraztasuna:** web orri oso sinplea izango da.
- **Prestazioa:** Sasoian dauden lehiaketen berri emango diegu, Web orrialdearen bidez. Talentu bakoitzerako sekzio desberdinak irekiko ditugu, eta mundu osoko lehiaketak agertuko dira.

Baina ezaugarri guztien artean, honako hauek dira garrantzitsuenak:

- **Nobedadea:** Desberdina da, bakarrik **helburua lortutakoan etekin bat** lortuko dugulako.
- **Segurtasuna:** **Arriskua murrizten dugu**, segurtasunez arduratzen garelako, adibidez, geratuko diren bi pertsonen arteko informazioa bieie eskaintzen diegulako.



MIMAT